

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresak aurrera jarrai zezan, norberak bere funtsezko baliabideak zehaztu ondoren bazkideon partekatu genituen. Proiektuari begira, honi egokitzen zitzaizkion baliabideak bazkideon artean azaldu eta norberaren gaitasunak azaleratu genituen. Iraide Lertxundik eta Irati Eizaguirrek, diseinuan lagunduko dute. Iraidek, webguneen diseinua egiteko gaitasuna du eta Irati, berriz, aulkien diseinuan oinarrituko da. Bestalde, Manex Aristik motibatze gaitasun handia du. Produktuak saltzeko gaitasuna oso garrantzitsua da gure proiektuan eta gaitasun hau Unax Esnalek du. Honez gain, azkenik, Ane Aramendik gaiarekiko ezagutza handia du aulkien osakeratik hasi eta bere erabilerararte.



Proiektuari dagokionez, gure helburua, lesio ezberdinak dituzten pertsonen gurpildun aulkiei motorrak egokitzea litzateke. Egokitzapen lan hau egin ahal izateko, hornitzaileengandik eskuratuko ditugu motorrak, hala nola, Batec mobility (enpresetarako ekipamenduen hornitzailea). Modu honetan, enpresaren batekin hitz eginez, kolaborazio moduan, motorrak eta beste hainbat pieza eskuratuko ditugu egokitzapena aurrera eramateko. Beranduago, motorrak egokiturik daudenean hainbat tokitara zabalduko dira, salduak izateko.